HAMABOSKARIA - 2003ko abenduaren 5a VII. urtea - Usurbil, 171. zenbakia

N u !



Santo Tomas eguna hilaren 14an ospatuko da



# Eguneko Zentroan lagun giroa nagusi

# ALKARTASUNA KOOPERATIBA

*baserritar nahiz kaletarrentzat*



Garaian garaiko egokia:
*piperrentzako ozpina eta patxaranerako anisa*

Baserriko kalitatezko produktuak:
*gazta, iogurta, txakolina, zainzuriak, piperrak...*

Betikoak: *ongarriak, lanabesak, haziak, elikagaiak,...*

Bereziak: *oinetakoak, burdindegia, txakur, katu eta txori-janak,...*

*Ordutegia: goizez 9-13, arratsaldez 16-19, larunbatetan soilik goiz partean*

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org

# Egin txotx!




Irudi berria denboraldi berri batentzako

Zubieta, Telf: 943 36 12 29

**Argitarapen honen edizioko laguntzaile:**

kutxa

zuri esker

# Txirrikitutik



Argazkilari ezezaguna, 1958-09-08 Ernio mendiko gailurra
Jabetza: Antonio Pello Aranburu

Euskaldunak betidanik mendian ibiltzeko afizio handia izan dugu eta garbi dago oraindik ere ohitura honek horrela jarraitzen duela. Usurbildarrak ere mendizale amorratuak izan gara. Horren adibide garbia ondoko argazki zoragarri hau duzue.

Argazkia 1958ko irailaren 8an aterata dago, Ernio mendiko gailurrean; argazkian bertan horrelaxe jartzen du: “Hernio´ko kurutzpean 1958´garen AGORA´ren 8´an”. Usurbildar lagun kuadrila hau, Ernioko gailurrean usurbildarrek jarritako gurutzea ikustera joan omen ziren eta bertara iritsi zirenean, gurutzearen aldamenean jarri eta argazki paregabe hau ateratzeko tartea hartu zuten. Guztiak makila, txapela, eta abarkekin jantzita (bat ezik, mendiko botekin igo baitzen) ageri dira. Lagun talde hauetako protagonistak aski ezagunak izango zaizkizue nahiz eta dagoeneko gehienak gure artean ez egon. Hona hemen bertan agertzen diren pertsonen izen-abizenak: Felix Urkia, Sebastian Sagardia, Jose Maiz, Tomas Maiz, Ignazio Urkia, Valeriano Sagardia, Luis Maiz, Nikolas Aizpurua, Antonio Pello Aranburu eta Jose Mari Sagardia.

**Zaloa Arnaiz Ibarguren**

**OHARRA:** Udal fototeka herritarren zerbitzura dago eta horretarako ateak zabalik ditugu bertako funtzionamendua ezagutzeko, argazkiren bat ikusi edo eta eskatzeko, herriko argazki zaharren bat udal fototekara digitalizatzera ekartzeko... Jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udaletxeko 2. solairuan gaude (9’00etatik 14’00etara). Telefonoa 943 371951 eta e-posta: fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net
Garai bateko argazkien bidez gure herria ezagutzeko aukera izango duzu. Anima zaitez!

N u !

**Argitaratzailea** : *Noaua!* Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
elkartea@noaua.com
erredakzioa@noaua.com
publizitatea@noaua.com
Web orria: www.noaua.com

**Kazetarien koordinatzailea:** Imanol Ubeda

**Publizitatea:** Jon Rueda

**Kolaboratzaileak:** Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe eta Denborapasak: LUMA, O.E.

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

**Informatika**: Topaguneko informatika zerbitzua.

**Banaketa**: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - **ISSN:** 1136-6818
**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

***Noaua!* Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:**
**10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan**

**AZALA**
**Oso ondo egokituta topatu genuen Eguneko Zentroa.**

# Aurkibidea

**ZUTABEAN, AITOR LANDALUZE** 4. ORR.

**PIL-PILEAN** 5. ORR.
Santo Tomas egunaren xehetasunak

**BERRIEMAILEAK KALEJIRAN** 6. ORR.

**KONTZEJU TXIKIA** 10. ORR.
Hobari berriekin dator 2004ko zerga egutegia

**ERREPORTAJEA** 12. ORR.
Eguneko Zentroaren ateak zabaldu berri dira



**UHL ELKARTE EZBERDINEKIN BILDU DA** 14. ORR.

**ALBISTE LABURRAK PORRUSALDAN** 15. ORR.

**EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN** 22. ORR.

Usurbilgo Udala

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak
Euskal Herrira!

## Zutabea !



# Oroimena

AITOR LANDALUZE

Oroimena dut lagun handia, besteen oroimenak ordea irakasle, gaurkoa berriz oroimen ahaztua: Mendizorrotzetik behera etorri ziren, Iruretagoiena koronela buru zutela. Armaturik eta desfilean, 1936.eko irailaren 17an. Ez dakit udazken hasierako euri tristeak agurtu ote zituen, baina badakit urte-luzeetarako ederki goibeldu zutela. Bezperan zelatariak igorri zituzten, hurrengo eguneko arropak aukeratzearren? lanekoak ala festarakoak, dirudienez bigarrenak aukeratu zituzten eta lasai xamar, berrogei urtez, bai, lau hamarkada luzez bertan geratu ziren.

Beraien sarrerak beste askoren irteera bihurtu zuen, batzuk gutxira itzuli ziren, beste batzuk urteak pasa ahala; itzuli ezin izan zutenak asko. Iheslariek kontrako bidea hartu zuten; mendebalderantz eta Andatzatik barrena Bizkaia aldera jo zuten. Bidean apaiza bat; D. Julian "Santa Cruzadatik" ihesean, Aiako borda batean ezkutatzera joan zena, egun horietan askotxo bezala beldurturik, ikusi zuten. Orduan ere elizan kontraesanak?

Lehenengo egunetan herrian militarrek agindu zuten eta astelehena 21erako falangista eta karlisten alkatetza berria aro berrietarako antolatu zen. Nafarroako erriberan hasi Ebroko mugetatik, eta iparralderantz, itsasorantz, zabaldutako izurrite beltzaren gisan, mendeku nahiak batzutan eta fundamentalismoak besteetan izua eta beldurra finkatu zuten. Han bezala hemen ere odola beharrezkoa izan zuten, eta han bezain errez hemen ere; beren etxeetatik, eskuak loturik atera zituztenekin lortu zuten.

Herrian bi aste zeramatela Jose Mari Furundarena, Aginagako Eizako gaztea Lasartera preso eraman eta urriaren 2an Tolosan fusilatu zuten. Astebetera, urriaren 10ean aurreko egunetan atxilotutako beste hiru fusilatu zituzten, Gaztainagako Juan Bautista Aginaga Meagasen eta Orioko mendatean, ez dakit Usurbili begira, itsasoari edota zerura, Zubietako maisua zen Kosme Yaguez eta Zabaleko Patxi Aizpurua. Azkenik Kalezarko Kaskoeneako Jose Galarmendi azaroaren 2an Zizurkilen fusilatu zuten. Epaiketarik gabe, defentsarik eta errukirik gabe, bakardadean, zerrenda beltz batean azaltzeagatik.

Hauek bezala beste asko garbitu zituzten, edozein herriko bide-bazterretan zein Urbasako leizeetan, Orioko mendatean zein Hernaniko hilerriko ormetan. Batzuk oraindik ere, oroimenak galdutako zokoren batean daude, hirurogeita zazpi urteko lur geruza baten azpian lurperaturik, ahazturik, norbaitek gogora ditzan, zain.

## Ika-mika !

# Herriaren alde lana egiteko ordainsariak behar al dira?

Ez da bidezkoa. Herriko hainbat taldetako kideak musutruk, borondate hutsez herriaren eta herritarren alde lanean ari garen bitartean, udal agintariek beraien patrikei begira jarraitzen dute. Urrian udal taldeei eta zinegotziei eman beharreko diru kopuruak handitu zituzten, azaroan, berriz, kargu berriak sortu eta EAJ-PNVk liberatu erdi bat (hiru zinegotzitan banatua) eta PSE-EEko zinegotzi batek lanaldiaren %20ko dedikazioa izatea erabaki dute.

Hauteskunde aurreko kanpainan guztiak zeuden usurbildarren zerbitzura jartzeko prest. Lana agintzen zuten, baina ez zuten esaten herriaren alde lana egiteko ordainsariak eskatuko zituztenik. Eta horixe gertatu da. Datorren urteko aurrekontuan, aurreko legealdietako partidekin alderatuz, gutxienez 55.000 euro gehiago bideratu beharko dira goi karguen soldatak ordaindu eta talde politiko eta bertaratze sariei aurre egiteko. EAJ-PNV eta PSE-EEk eskatutakoa atzera bota zuten hasiera batean EA eta PPk, baina azkenean alkatetzak ez du hasierako postura mantentzeko adorerik izan.

Hona hemen Noaua! Hamaboskariaren 169. alean irakurri nituen bi esaldi:

- "Hilabete amaieran zinegotzi batek jasotzen duena zenbatzen hasita, akaso ez du kargu hori hartzeak merezi, ardura handikoa izateaz gain, lan honek ordu asko eskatzen baititu" (PSE-EE).

- "Gure ahalmenak usurbildarren alde ipintzeko bitartekotzat hartzen dugu zinegotzi kargua, eta ez saritua den lan bat izateko aukera moduan(…).Uste dugu gure taldeak liberazio oso baterako eskubidea duela, gero hiru zinegotzien artean banatu ahal izateko, eta baita talde eta zinegotzi bakoitzeko dagokigun diru kopuruen igoera; hala nola, liberaziorik ez duten batzordeetako asistentziagatik dagozkigunak".

Hemen esandakoak aintzat hartuta herriko talde desberdinetan borondatez lan egiten ari garenok ere ordainsariak eskatu beharko dizkiegu udal agintariei. Nik, behintzat, Usurbil Futbol Taldeko zuzendaritzako kide eta entrenatzaile naizen aldetik, soldatatxo bat eskatuko nuke. Hilabete amaieran jasotzen dudana zenbatzen hasita aldaketarik ez dut somatzen nire kontu korrontean. Are gehiago, Udalak ematen digun diru kopurua nahikoa ez eta errifak eta kartelak ateratzen, areto futboleko txapelketa antolatzen, kamisetak ateratzeko babesleak bilatzen, besteak beste, ordu asko sartzen ditugu. Hala ere, herritarren alde lan egiteko prest gaude, baina ordainsaririk jaso gabe, noski. Herria bizirik mantentzen laguntzen dugula ikusteak betetzen gaitu.

Ikusiko dugu datorren urtean herriko taldeek diru gehiago jasotzen dugun ala ez. Udal agintari eta alderdien diru sarrerek 55.000 euroko igoera izango badute, herriko taldeek ere zerbait gehiago ikusiko dugu ezta? Orain udalean kargu gehiago daudenez norbaitek hau aztertzeko ardura hartuko al du…

**Josu Aranberri Aristi (44140482D)**

# Babarrunik gabeko Santo Tomas eguna izango da aurtengoa

**Abenduaren 14an ospatuko dugu Santo Tomas festa. Aurten, hala ere, ezberdina izango da ospakizuna. Ez da ez babarrun eta ez bertako sagardo lehiaketarik egingo. Ziortzakoei esker, gosea talo eta txistorrarekin berdindu ahal izango dugu. Txerri zozketa ere egingo da eta musika ez da faltako. Beraz, ongi etorri NOAUA!k eta Ziortzak antolaturiko ekitaldi honetara.**

Babarrun denboraldia kaxkarra izan da aurtengoan. Ale gutxi izan da aurten eta horregatik ez da babarrun lehiaketa antolatu. Sagardoa eta bertako produktuak erosi eta dastatzeko aukera ere, beste edizio baterako utziko da. Honakoan, beraz, lehiarik ez da izango; baina festa kutsuko osagaiak baditu abenduaren 14ko Santo Tomas egunak.



AZOKARIK ETA LEHIAKETARIK EZ DA EGINGO BAINA EGUNAK BESTE OSAGAI BATZUK IZANGO DITU: MUSIKA, TALO-JANA, TXERRI-ZOZKETA...

# 2004ko egutegia datorren alearekin batera banatuko dugu

**Iazko egutegiak arrakasta handia izan zuen. Aspaldiko argazkiek, bereziki, oihartzun handia izan ohi dute. Honakoan, gure inguruko baserriekin osatu da 2004ko egutegia. NOAUA!ren datorren alearekin batera jasoko duzue Zaloa Arnaizek osatu duen lan ederra.**

Iaz bezalaxe, Udal Fototekan aurkitzen diren argazkiekin osatu dugu egutegia. Iazkoaren tamaina berdinekoa denez, 2003koa ipinita duzun leku berean jarri ahal izango duzu.




EGUTEGIAREN AZALA ETA UZTAILEKO IRUDIAK DITUZUE HAUEXEK.




Zubiaurrenea, 3

Urtinea
San Esteban Tlf.: 943 36 22 55

PSU S.L.
serigrafia
Tampografia
Tel.: 943 371 954 Fax: 349 376 551



Txokoalde

IÑAKI LABAKA

# Ea ez diren baporeak azaltzen

Urriaren 15an hasten zen angula harrapatzeko epea, baino egun bat lehenago Lakuako Gobernuko Nekazaritza eta Arrantza Departamentuak, aldi baterako debekua ezarri zuen Prestige ontziaren isuriak eragindako kalteak zirela eta.

Bat baino gehiagok hasarretuta, "aurten anguletara joan gabe" ikusten zuen bere burua. Ez zuten egoera ongi konprenditzen, beste arrantza mota ez eta angula debekatu. Ez duk pasible!

Hilebete beranduago, anguleroen pozarako Eusko Jaurlaritzako agintariek, kutsaduraren bilakeraz eta eraginez datu berriak ikusita, txitxardin-arrantza egiteko ezarri zuen debekua kentzea ebatzi zuten.

Ordutik hor dabiltza makina bat lagun gauero angula harrapatzen ahaleginetan, irrikitan zeuden nonbait. Horretarako baia eta farola hartuta, norbaitek kendu baino lehen, goiz xamar txoko gustokoena hartu behar da.

Asko dira bere tokira, marea igo baino ordu batzuk lehenago joaten direnak.

Gure auzoan jakina da zubi inguruko bazterrak direla estimatuenak eta hantxe ikusten dira farolen argi gehienak.

Azaroaren 23ko ilargi berrian, jada arrantzako baimenarekin, hainbat lagunek gure txokoetan bazterretik harrapatutakoarekin, kazuelatxo bat baino gehiago osatzeko moduan dela honez gero, entzun dut. Batek, hain zuzen, lau bat kilo bildu ote dituen alajaina. Gabon usaina badatorkigu eta gaizki ez dituzte pasako!

Angula enpresei saltzen ba dizkiete diru mordoa aterako dute bestela, daukaten prezioa ikusita.

Ibaia bestalde, azken egunetako euriarekin pixka bat hazia dijoa, baino horrek ez ditu anguleroak kikildu eta hor jarraitzen dute egunero, bere ahaleginean.

Iaz ez zen batere ikusi eta seinale ona da gerorako harrapatzen ari direla jakitea. Ea hurrengo uraldian angula gehiago sartzen den eta aurtengoa urte ona suertatzen zaigun. Orain arte bezala baporeek ez badira azaltzen hobe, horiek dena biltzen baitute, bazterrekoari ezer utzi gabe.



Kaleberri

ENEKO HARREGUY

# Esan dezagun...

Eta zu, Josune, nahi zaitut ene! Pentsatuko du Jon Mikelek. Eta Jonmi, heldu iezaiozu bihotz honi, pasako zaio burutik Josuneri. Eta halako moduko pentsamenduak buruan ezin kabituz lausotu eta lehertarazatea lortu baino lehenago, ihes-tutuak kea bezalaxe, gure ahoak maitasun hitzak kanporatu behar ditu, kotxeak motorra eta gorputzak bihotza erre ez dezan. Erre ez gaitezen eta erre ez gaitzaten ere bai.

Biziki ezkontza maitagarria izan zen. Xehetasunik ttikiena ere, maitasunak eskatzen duen eran, ezin hobeki zaindua. Eta zuen maitasunak aurrera egin duelako iritsi da ezkontza. Zuen arteko errespetuak, zuen arteko hitz goxoak bere bidea egin duelako bihotzeraino arte. Bere bidea egin duelako berandu gabe. Beti esan diozuelako elkarri sentitzen duzuena eta beti egin duzuelako pentsatzen dezuena.

Bestetzuok gauza bertsua egingo genuke gaur gure azken eguna dela jakingo bagenu, eta “maite zaitut” esango genioke maitatuari, jakintzat ematen duela kontuan hartu gabe. Etengabe.

Gazte edo zahar, biharko eguna ez dago inori ziurtatua. Eta litekena da maite ditugunak ikusiko ditugun azken eguna izatea gaurko hau. Hargatik, ez genuke luze itxaron behar; izan ere biharra ez bada inoiz iristen damutu egingo zaigu irrifar bat, besarkada bat, muxu bat emateko denbora hartu ez genuen eguna. Horregatik, maite ditugunak gertu edukitzen saiatu behar dugu, eta esan (lotsarik gabe) zenbat maite dituzun, eta hartu denbora “sentitzen dut”, “barkatu”, “mesedez”, “eskerrikasko” eta maitasun hitz oro belarri ertzera esateko.

Inork ez gaitu gogoratuko buruan darabiltzagun ezkutuko pentsamenduengatik. Haiek kanporatu beharrean gaude, eta indarra atera behar dugu ahalik eta ongien adierazteko.

Kalezar



ANDONI UDABE

# Igandean kirola, ufff...!

Agur t´erdi denoi berriz ere. Auzoko kronika batidazten dudan bakoitzean beti sentsazio berdina eduki ohi dut, -beste denbora tarte baterako seguru nauk!-, pentsatzen dut nere barrurako, kronika idazteak eskatzen duen ahalegina (hainbesterako ere ez da baina... negar pixka bat egin behar!) gainetik kenduta. Hala ere, hurrengoa idazteko garaia instant batean iristen zait eta beti bezala korrika eta presaka egunerako entregatu ezinik.

Kontuak kontu, gaurko hau auzoko, eta aldi berean herriko, gaztetxoenei zuzensu nahi diet bereziki. Andatza Kultur Kirol elkarteak abenduaren 9tik 14ra burutuko duen mendi astean parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dizuet. Astean zehar, mendia eta mendiarekin lotuta dauden ekintzen inguruko diapositiba emanaldiez gozatu ahal izango duzue, eta igandean, hilaren 14an, gaztetxoen ibilaldi neurutua burutuko da.

Edonork har dezake parte ibilaldi neurtu honetan, hori bai, 16 urte baino gehiago ez baditu. Bi edo lauko taldetan banatuta egingo dira, adinez txikienek arduradun bat taldean eramango dutelarik. Izen ematea frontoian izango da eta goizeko 9:00etan hasiera emango zaio gaztetxoen lehen ibilaldiari. Ibilbidea 2-3 ordu ingurukoa izango da eta bukaeran sariak egongo dira. Talde irabazlea ez da azkarrena izango, ez du ibilbidea ahalik eta denbora gutxienean gauzatzen duenak irabaziko, baizik eta antolatzaileek ezarritako denbora jakin batetik gehien hurbiltzen den taldearen denbora sarituko da. Honekin, konpetizio edo lasterketaren irudia alde batera utzi nahi da, erregulartasuna eta mendiaz gozatzeko aukerak berrindartuz garai bateko ibilaldi neurtuetan egiten zen legez.

Beraz, badakizue, kirol pixka bat eginez Usurbil inguruak ezagutu ditzakezue eta gainera sariren bat etxera eraman. *Zer geyo bihar deu ba?*

Atxegalde



AINARA ARNAIZ

# Pasatzeko makurtu egin behar

Udazkenean bagaude ere, badirudi negua gure bizitzetan sartzeko irrika biziz dagoela eta hasi da bere euri, haize, elur etab. bidaltzen. Orain gutxi arte lasai ibil gintezkeen baina hotza hasi da barruko hezur txikiena ere astintzen. Gure auzoan nabarmena da eguraldi aldaketa, paisai triste eta bustia azaltzen baitigu.

Baina ez da hori nik lerro hauetan azaldu nahi nuena. Atxegaldeko ia kale guztietako etxe-atzetan patioak daude. Horietako batzuk izkutuan geratzen dira eta oso gutxi gara arreta jartzen dugunok. Honek ordea ez du esan nahi garbi eta txukun ezin dutenik egon, herri honetako beste edozein txoko bezala.

Erdiko kalean bada deskriba ezin dudan egoera xelebrea. Kainabera moduko landare batzuk bertan dagoen etxearen atzeko lehenengo pisuraino iristen dira bertako pasabidea eragotziz (egia esan bertatik badago pasatzerik, baina dexente makurtu behar da. Bertan bizi garenok egunero egiten dugu topo bertako narraskeriarekin. Ez zait iruditzen hau salatzea eta soluzio bat eskatzea kapritxo bat denik. Nire iritziz hau onartezina da. Ez dut gogoan udaletxera joan, eta pasatzerik ez nuelako makurtu behar izan. Zergatik hortik pasa behar dudan bakoitzean zailtasun horiekin egin behar dut topo?





Ez zait iruditzen hain zaila denik arlo guztietarako herrian berdintasun bat mantentzea. Niri ez dit ezertarako balio kaxkoa garbi eta txukun dagoela ikusteak egunero Atxegalden dauden horrelako gabeziekin bizi behar badut.



Santuenea

PAKO AGUDO

# Bisitariak

Kaixo oraingoan lan gehiago egin behar izan dut gure auzoko kontuak zuengana helerazteko. Agian inspirazio falta izango da, edo betikoa errepikatu nahi ez izatea. Badakizue, behar ditugun konponketak eskatu, frontoia noizko egingo den galde egin... Bat-batean inspirazioa etorri beharrean, berria gure auzora etorri da eta guk eskatu gabe.

Denok dakigu gure auzoak orain duen arraza nahasketa berezi hori baina nire belarrietara beste arraza berri bat azaldu zaigula iritsi da.

Harrituta geratu nintzen gure auzotik pertsonaia berde batzuk azaldu izan direla azken aldi honetan jakin nuenean. Gure auzoa nahi genuen bezala konpontzeko intentzioarekin brigada berezi bat iritsi zitzaigula pentsatu nuen, baina segituan joan zitzaidan burutik. Eta oraindik Olentzero iristeko goizegi. Gure ehiztariekin ere gogoratu nintzen, ezin ahaztu, agian usoak utzi eta horrela desfilatzen hasiak ote ziren, militar formazioan korrika



eginez. Eta orduan piztu zen nire bonbilatxoa, kostata baina azkenean, militarrak etorri zitzaizkigula beraien maniobrak prestatzera! Nire buruak ez zuen Santuenea militarrekin harremanatzen baina bai, hemen egon dira, guri ere euren desfileaz gozatzea tokatu zaigu. Ea guregana iristen den hurrengo albistea beste era batekoa den, bestela, inspirazioa lantzen jarraitu beharko dugu.



Urdaiaga

JOSEBA ZUBELDIA

# Usurbilgo Urdaiaga auzokoa

Kaixo lagunok, aspaldiko! Hemen natorkizue berriro ere Urdaiga auzotik berri ematera. Egia esan auzo hau ez da berri asko izaten dituen auzo bat, auzo lasai eta baketsua denaren adierazgarri delarik. Horregatik askotan ez da zer idatzirik bururatzen. Hala ere auzo honi buruz hitzegin gabe geratzeak pena ematen dit.

Nere-nerea dut auzo hau. Aitaren familia bertakoa izanik txiki txikitatik ibili izan gara hemendik bueltaka. 14 bat urterarte Atxegalde auzoan bizi izan nintzen, gustora bertan ere. Horregatik askok esaten didate atxagaldetarra naizela baina hauei errespetu osoz sanestebandarra sentitzen naiz. Auzo hark asko eman zidan eta ematen jarraitzen dit, lagun asko baititut bertan. Auzo honek, berriz, azaldu ezin den zerbait eman dit, nahiz eta askotan, entrenamendu amaieran aldapa gora, pentsatzen dudan, Atxegalden bizi izan banintz! Nire izaera ezaguturik leku lasaiak eta libreak ditut gogoko, baserri giroa nabari dena. Gainera herritik ez dago



batere aparte eta hori ere beharrezkoa dela pentsatzen dut murgilduta gauden mundu honetan. Nahiz eta ondorenean non biziko naizen zihurtatzerik ez daukadan (urte gutxiren buruan gauzak asko aldatzen baitira), gauza bat argi dut behintzat beti esango dudala usurbildarra naizela eta Sanesteban auzokoa.

Aginaga



LONTXO ZUBIRIA

# Aspaldiko partez, elkarrekin

Aginagako Soziedadean azaroaren 22an –larunbata- ateratako argazkia duzue hau. Urte dexente pasa behar izan dute gaur 45-47 urtetan dabiltzan aginagatar hauek koadrilan bazkaltzera berriro bildu arte. Jakin dudanez, bazkaria antolatzeko ideia Maribel Bruñorena izan omen zen, baina gauzatzeko arduradun nagusia –nola ez- Joxemari Eizagirre "Aldapa", gure herriko "Argiñano".

Bazkaria oso goxoa izan zela aitortu zuten denek eta aipatzen zuten hurrengo urtean errepikatu beharra zegoela. Ahal bazen gainera han falta ziren beste batzuk ere etorrita. Kafe garaian, aspaldi elkar ikusi ez duten "kintoekin" beti gertatzen den bezala, ez zen kontua falta izan, oraingoak batzuk eta aspaldikoak beste asko. Xabier Begiristain "Lertxundik" gainera Himalaian joan den urtean ikusitako mendi, paraje eta jendeei ateratako diapositiba politak erakutsi zituen.



Baten batek esan zuen gazte denborako Aginagako zinean bezala zeudela.

Hemen doakizuen argaki hau atera nien, baina aitortzen dizuet horretarako mahai gaineko botilak kentzen lan piska bat izan zela. Erretratuan zein dan zein, irakurleak asmatuko du.

Zubieta



OLATZ DE MIGUEL

# Orwell-en itzal luzea

Euskaldun huts sentitzen denak inoiz bere nongotasunari buruz azalpenak eman beharrean aritzen den moduan, zubietarrok ere badugu halako egoerak igaro beharra. Imajinatu bi zubietarri norbaitek nongoak diren galdetzen dietela: "Nongoak zarete? Zubietakoak; ah, Lasartekoak! ez, ni Usurbil aldekoa, ni berriz Donostia aldekoa".

Tira, hau sarrera moduan zihoan, izan ere gure nongotasunari buruz azalpenak eman beharra egoera askotan aurkezten zaigu, bereziki posta kodeari dagokionean eta bereziki Donostia aldekooi (Usurbil aldekoek Usurbilgo bera dute, baina Donostia aldekook Lasarte-Oriako zenbaki bera dugu).

Zenbat aldiz ez ote zaigu gertatu helbidea eman behar izan dugunean (dela fakturak etxera helbideratzeko edo beste edozein gauza), posta kodea eman....hara!, ordenagailuan zenbaki hori Lasarte-Oriako herriari dagokiola azaltzen dela eta helbidean Lasarte jarri beharko dutela erantzun izana. "Ezetz ba, zenbakia berdina da, baina helbidean jartzekotan Zubieta-Donostia jarri beharko duzu, Lasarte behintzat ez", "baina ordenagailuak ez dit aldatzen uzten ordea....". Eta hara non posta kodea hartzen ari zaizunari zailagoa egiten zaion zuri sinistea pantailan jartzen dionari baino...



Tira, agian batzuk arrazoi dute eta laster makinak munduaren jabe egingo dira. Orwell-en itzal luzea...

# 2004ko zerga egutegia onartu da

**Datorren urteko zergak ordaintzeko egutegia onartu berri du Udalak. Hobarietan datoz nobedade nagusienak. Datu esanguratsuenak jaso ditugu honako artikuluan, baina informazio zehatzagoa noaua.com helbidean eskuratuko duzu edota Udaletxeko erregistroan galdetuz.**

**a) Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga**
Martxoaren 1etik maiatzaren 15 arte. (Helbideratuak maiatzaren 2an kontu korrontean kargatuko dira).

**b) IBI iraunkorra- (Badoak)**
Urriaren 1etik urriaren 30 arte. (Helbideratuak urriaren 1ean kontu korrontean kargatuko dira).

**c) Ondasun Higiezinen gaineko zerga (kontribuzioak).**
Maiatzaren 15etik uztailaren 4 arte. (Helbideratuak ekainaren 30etik uztailaren 4a bitartean kontu korrontean kargatuko dira).

**d) Ekonomi jarduera gaineko Zerga**
Urriaren 1etik azaroaren 10 arte. (Helbideratuak urriaren 20an kontu korrontean kargatuko dira).

**Hiruhilabetero ordaindu beharreko tasak**

**- Ura, estolderia eta zaborren tasa:**

1.go hiruhilabetea: ekainaren 1etik uztailaren 15era.

2.go hiruhilabetea: irailaren 1etik urriaren 15era.

3.go hiruhilabetea: azaroaren 1etik abenduaren 15era.

4.go hiruhilabetea: otsailaren 1etik martxoaren 15era.(hurrengo urtean).

**- Asteroko merkatuaren erabilpen tasa:**

1go hiruhilabetrea: apirilaren 1etik apirilaren 30era.

2go hiruhilabetea: uztailaren 1etik uztailaren 30era.

3.hiruhilabetea: urriaren 1etik urriaren 30era.

4. hiruhilabetea: urtarriaren 1etik urtarrilaren 30era (hurrengo urtean).

Ura, zaborra, estolderia eta asteroko merkatuaren erabiltzaileen erroldaldetako helbideratutako agiriak borondatezko epearen aurreneko egunean kobratuko lirateke.



2004KO IBI IRAUNKORRAK EDO BADOAK URRIAN KOBRATUKO DIRA.

## Hobarietan berrikuntzak

Usurbilgo udalak zenbait zergetan ondoren aipatzen diren salbuespen eta hobariak onartu ditu, 2004. urtean indarrean sartuko direlarik. Zenbait kasutan interesatuak udaletxean salbuespen edo hobarien eskaera egin beharko du. Hona hemen onartu diren hobariak.

**Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga**

1- Familia ugariei %50eko salbuespena.

Subjetu pasiboak familia ugarien titularrak direnean, eskaera egin beharko dute udal honetan. Eskaerarekin batera, familia ugarien titulu eguneratua aurkeztu beharko dute. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza zerbitzuak luzaturikoa ain zuzen ere Udaleletxean hobariaren eskaera eta aipatu titulua aurkezteko epea: 2003ko abenduaren 15etik 2004ko martxoaren 15era bitartean. Interesatuek epea amaitu ondoren eskaera egiten duten kasuan, hurrengo urtetik aurrera izango du eragina.

2- Kuota osoaren %50ko hobaria babes ofizialeko etxebizitza berrietarako eta dela proiektuan dela erregistroan, haiei lotuta dauden garaje eta trastelekuetarako, beti ere behin betiko kalifikazioa eman ondorenetik lehen 3 urtetan.

Hobariaren aplikazioa ofizioz egingo du Udalak.

3- Hutsik dauden etxebizitzen errekargua. Ondasun higiezinek etxebizitza erabilera dutenean eta modu iraunkorrean hutsik daudenean %25eko errekargua ordaindu beharko dute zerga kuota likidoaren gainean. Errekargu honen aplikazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak aurretik dagokion etxebizitza hutsen erreglamendua onartzeari baldintzatua dago.

**Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga**

Salbuespenak:

1-Minusbalidoen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona hoiek soilik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak direnean aplikatuko da.

Salbuespena gozatu ahal izateko interesatuek eskaera aurkeztu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko. Salbuespena aplikagarria izateko, ibilgailuaren titularrak udalherri honetan egon beharko dute erroldatuak. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Ibilgailuaren Zirkulazio baimenaren fotokopia
- Ibilgailuaren Ezaugarri Teknikoen Ziurtagiriaren fotokopia

Gizartekintzak edo bere ordez diharduen erakunde edo agintari administratiboak luzaturiko ziurtagiri originala. (Udaletxean fotokopia konpultsatua egingo da.)

*(Hurrengo orrian jarraitzen du)*

(Aurreko orrialdetik dator)

Eskaera egiteko epea: abenduaren 15etik otsailaren 13ra bitartean.

2-Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makineria, nekazaritzako makinaria inskribatzeko kartilaz hornituta daudenean salbuespena eskatu dezakete.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

-Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia.

-Ibilgailuaren Ezaugarri Teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.

-Nekazaritzako Makinaria inskribatzeko kartilaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamenduko Nekazaritzako Makineriaren Erroldan alta hartu izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularraren izenean luzatua.

Eskaera: Traktorea, atoia... erosten denean.

Hobariak:

1-Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna dutenek %50ko hobaria izango dute zerga kuotan. Azken hauen kasuan udalak ofizioz aplikatuko die salbuespena.

2-Turismo, autobus eta kamioi motako ibilgailuek %50eko hobaria baldin eta kontsumitzen duten karburante motaren arabera, motorraren ezaugarrien arabera eta karburante horren errekuntzak ingurugiroan duen eraginaren arabera. Beti ere, zehaztuta dauden baldintza eta betebehar batzuen arabera. Baldintza horien berri udaletxean jasoko duzue.

Eskaera egiteko epea: abenduaren 15etik otsailaren 13ra bitartean.

**Ekonomi Jarduera gaineko zerga.**

Honi buruzko xehetasunak datorren alean aipatuko ditugu.

### Egutegi osoa Interneten

Hala ere, 2004ko zerga egutegi osoari buruzko txosten osoa www.noaua.com helbidean topatuko duzu edota Udaletxeko erregistroan.

# Presoen aldeko ikurra berrezartzeko mozioa ez zen aurrera atera

**Azaroaren ohiko udalbatza plenoan, herriko 22 taldek babestutako mozio bat aztertu zen. "Euskal Presoak Euskal Herrira" ikurra udal inprimaki ofizialetan berrezarri eta hori debekatzen duen sententziaren aurkako errekurtsoa berriz jartzeko eskatzen zitzaion udal korporazioari. Baina udal ordezkariek bat egin eta ez zuten eskaera aintzakotzat hartu.**

### Udal ordezkarien izendapena

EAJ-PNV alderdiak erakunde ezberdinetarako ordezkariak izendatu ditu:

Kirol patronatuan, Pedro Ibarra. UEMAn, Andoni Atxega eta Jose Maria Zubiria. EUDIMAn, Mari Karmen Astigarraga eta Julian Beraetxe.

### Udaleko langileen zerrenda

Urte amaieran izan bada ere, 2003 ekitaldian udalean aritu den langileen plantila eta lanpostuen zerrenda behin betikoz onartu zen azken plenoan.

### Bestelako erabakiak

Kreditu aldaketak ere erabaki ziren eta baita 2004ko urte anitzetako gastu izendapena aldatzeari buruzko akordioa ere adostu zen. Akordio honen arabera, 2004 urteko aurrekontuetatik 518.000 euro izendatu dira Kultur Etxe berrirako.

Kalezarko Aizperrenean lur jabeek egindako lagapena onartu eta urbanizazioa hartzea onartu zen. Baita Zubietako Errota bidea zabaldu eta berau urbanizatzeko Salsamendi Amunarriz sendiarekin sinatu beharreko hitzarmenari baiezkoa ematea.

### Andoaingo erasoa salatzeko mozioa

Gai-ordena luzea izan zen azken udalbatza plenoan. Besteak beste, Estanis Amuchastegui andoaindar zinegotzi sozialistak jasandako erasoa aztertu zen. Amaya Goyaran PSE-EEko zinegotziak mozioa bat aurkeztu zuen eta udalbatzak ahobatez gaitzetsi zuen Amuchastegiren kontrako erasoa.

# Ordainsari berriak adostu dituzte EA, EAJ-PNV eta PSE-EEk

EA eta PP alderdien akordioa aurrera atera zenean, alkateak ez zuen ordainsarien gaia itxitzat eman eta solasean jarraitzeko asmoa azaldu zuen. EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiekin hitzartutako akordioaren arabera, lau kargu berri sortu dira:

-Herritarren eskubideen jarraipenerako zinegotzi delegatua, Julian Beraetxe (EAJ-PNV). Lanaldiaren %12,5ean.

-Adineko pertsonen beharren jarraipenerako zinegotzi delegatua, Mari Karmen Astigarraga (EAJ-PNV). Lanaldiaren %25ean.

-Euskara erabileraren jarraipenerako zinegotzi delegatua, Andoni Atxega (EAJ-PNV). Lanaldiaren %12,5ean.

-Aukera berdintasuna eta generopolitiken zinegotzi delegatua, Amaya Goyaran (PSE-EE). Lanaldiaren %20an.

Neurri honen ondorioz, urtean 17.000 eurotan igoko da liberatuei zuzenduriko gastua. Kargu hauen bidez, ordea, zinegotzi liberatu hauek ez dute bertaratze saririk jasoko. Neurri honekin, bertaratze gastu orokorrak behera egiten dute, 14.000 euro inguru.

Gai ez zen oharkabean pasa. Herritar batek bere kexua azaldu zuen kargu berri hauek sortzeko dirua bai baina beste jardueretarako dirurik ez dagoela argudiatuz.

# Martxan da Eguneko Zentroa

**Azaroaren 17an ireki ziren Eguneko Zentroaren ateak. Kalezarren, garai batean Udarregi Ikastolako egoitza izan zen eraikinean, goxo-goxo eta giro ederrean topatu genituen zentroko lehen bost erabiltzaileak, bertako zaindarien babesean. Oraindik beste zazpi lagunentzako lekua dago Eguneko Zentroan.**

Beste herri batzuetan bezalaxe, Usurbilen ere badugu Eguneko Zentroa. Ez da erresidentzia bat, erabiltzaileak egunero 18:00ak aldera etxera itzultzen direlako. Astelehenetik ostiralera, arreta berezia eskaintzen zaie Eguneko Zentrora hurbiltzen direnei.

Duela bi legealdi, Gizarte Ekintzaren aholku batzordean aurrikusi zen zentro honen beharra.

### Laguntza premian bizi direnentzat

Etxean bizitzen jarraitzen duten jende helduaren artean, badira egunean zehar laguntza premia handia dutenak. Horientzat leku aproposa da zabaldu berri den Eguneko Zentroa, laguntza pertsonala, psikologikoa eta emozionala ziurtatuta dagoelako. Oraingoz, bost dira izena eman dutenak baina 12 lagun ere jaso ditzake Eguneko Zentroak.

### 9:30etatik 18:00ak arte

Astelehenetik ostiralera, goizeko 9:30etan hasi eta arratsaldeko 18:00ak arte zerbitzu ezberdinetaz gozatzeko aukera dago: erreabilitazio fisiko, psikiko eta soziala, asistentzia soziala eta sanitarioa... eta, nola ez, bertako langileen laguntza eta babesa.

Eguneko Zentroarekin denek irabazten dute: laguntza premian den pertsona eta pertsona horren sendia. Helduek, egunean zehar tratu profesionala jaso ostean, iluntzean etxera bueltatzen dira. Eta senideei, egunean zehar lanean edo bestelako beharretan aritzeko aukera ematen dira.



IZENA EMAN NAHI DUENAK GIZARTE ZERBITZUETARA JOAN BEHAR DU ESKAERA ORRIA BETETZERA (943 37 71 10).

## Izena emateko nora jo?

Izena eman nahi duenak, lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuetara jo beharko du (edo 943 37 71 10 telefono zenbakira deituz). Eguneko Zentroa eskatzailearen beharretara egokitzen den ala ez, bertan baloratutzen da.

Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du Zentroak, baina erabiltzaileak ere kuota bat ordaindu behar du.

**Eguneko Zentroaren kudeaketa, GSR enpresaren eskuetan**

Eguneko Zentroaren kudeaketa GSR enpresaren esku geratu da, Horrelako zerbitzuak zuzentzen esperientzia handia duena. Langileak, berriz, Arantzazu Aranburu eta Lourdes Arantzazistroke izango dira.

TABERNA-JATETXEA
NTXET



MAHUKA

# Josune Urquia: "Usurbildarrek lehentasuna izango dute Eguneko Zentroan"

**Oraingoz 12 lagun bilduko ditu Eguneko Zentroak. Baina datu demografikoei kasu egiten badiegu, laister leku premian izango da. Josune Urquiak, Udaletxean ongizateaz arduratzen den zinegotziak, Eguneko Zentroaren inguruko datu aipagarrineak eman dizkigu.**

**Eguneko Zentroaren ateak ireki berri dira. Eguneko Zentrora joan ahal izateko zein baldintza bete behar dira?**

Araudiak bere 11.garren artikuluan dioen bezala, zerbitzua jaso ahal izango dute, zerbitzua eskatu aurretik Usurbilen gutxienez sei hilabete erroldatua eta jarraian zehazten diren baldintzak betetzen dituzten pertsonek:

1) 60 urte edo gehiago izatea.

2) Eguneroko bizitzako ekintzetarako autonomia murriztua izatea, bere egoera fisiko edo psikikoan hutsuneak dituelako.

3) Eskatzaileak Sakontzen balorazioan 3tik gorako ezgaitasun gradua eduki beharko du, edo, horrela izan ezean, egokitasunaren aldeko txosten bat izan beharko da, Udaleko Gizarte Zerbitzuen Departamentuko zerbitzu teknikoek egina eta Ongizate eta Osasun Batzordearen oniritzia duena eta Eguneko Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuak onuradunaren beharrak betetzen baditu onartua izango da.

4) Infekzio edo gaixotasun kutsagarririk edo ospitaleko arreta behar duen gaixotasun klinikorik ez izatea.

5) Zentroan elkarbizitza normala izatea eragotziko duen buruko gaixotasun larririk ez izatea.

6) Oheratua ez egotea.

Aipatutako baldintzen egoera desberdinean aurkitzen diren pertsonek ere, zerbitzua erabili ahal izango dute baldin eta udaleko gizarte zerbitzuek egokitzat baloratzen badute.

Zentroan plazarik libre balego, zerbitzua Usurbildik kanpo erroldatua dauden pertsonek ere erabili ahal izango dute, beti ere atal honetako goiko paragrafotan jasotako baldintzak betetzen badituzte eta eurek edo euren ordezkariek kasu hauetarako finkatutako prezioa ordaintzen badute.

**Eguneko Zentroarekin hutsune bat estali da gizarte arloan. Etorkizunari begira, zeintzuk dira Usurbilek dituen erronka nagusiak?**

Hurrengo urteetan adineko pertsonen kopurua handitzen joango denez zerbitzu geriatrikoak areagotu beharko ditugu Foru Aldundia, Osakidetza, farmaziak, DYA eta beste eragile sozialekin batera; eguneko zentroko plazak gehituz eta zerbitzua hobetuz, anbulategia egokituz, erresidentzi plazak areagotuz.

Baina baita ere sasoidun jubilatuak herri-eragile bihurtuz. Eguna bidaietan eta jokoan bakarrik pasatzea, beraien ezagupenak eta esperientzia xahutzea da. Soldata bat irabazteko lana egin beharraren zama gainetik kendua izatea beste hainbat gauzetarako liberatzen ditu, kulturgintza, entrenatzaile, politika... baita ere NOAUA!ko kazetari izateko ere!



IRUDIAN AGERTZEN DENA ATSEDEN GELA DUZUE.

# Gure artera ere iritsi zen jasangarritasunaren aldeko kanpainaren oihartzuna

**Jasangarritasunaren aldeko ekimenak sustatu asmoz, Buruntzaldeko hainbat herritan informazio kanpaina bat egin da. Azaroaren 30ean garapen orekatuari buruzko informazio ugari jaso ahal izan genuen.**

Pilotalekuan ipini ziren stand-etan jasangarritasunaren bidean aritzeko hainbat proposamen ezagutu genituen: energia berriztagarria erabiltzeak duen garrantzia, bertako eta garaiko produktuak kontsumitzeak dituen onurak, kutsadurari buruzkoak....

### ZUZENEKO INFORMAZIOA

Buruntzaldeko beste hainbat udalekin batera ari da gurea ere lanean. Instituzioen eta herritarren harremanak areagotu eta sustatzeko, buzoi berdeak ipiniko dira herrian. Informazioa eta proposamenak joan etorrikoak direnez, guk ere proposamenak helerazteko aukera izango dugu.



# UHL plataforma: "Usurbilgo herriari gure ekarpena egiteko prest gaude"

**Azken asteotan herriko talde eta elkarteekin bildu da Usurbilgo Herri Lan plataforma (UHL). Bide batez, azken asteotako berrien inguruko iritzia eman digu Arantxa Manterolak.**

**Azken bolada honetan herriko talde, elkarte eta erakunde ezberdinekin bildu zarete. Zeintzuk izan dira bilera horien asmo nagusiak?**

Bazterketa saio guztien gainetik, Usurbilgo herriari gure ekarpena egiteko prest gaudela eta herrian eragile politiko aktiboa izateko asmo tinkoa dugula azaltzea da talde eta elkarteekin egiten ari garen bileren helburu nagusia. Horregatik, UHL taldea eta beronek hauteskundeetan lortutako ordezkaritza aintzakotzat hartzea eskatzen diegu.

**Udaletxetik kanpo bada ere, UHLko kideek lanean jarritzeko konpromiso hori nola bideratuko duzue?**

Guk herriari egitasmo bat aurkeztu genion, herrigintza eredu bat. Hori oinarri hartuta egingo dugu lan. Baina lan hori ez dugu soilik udalera begira garatu nahi. Hain zuzen ere, talde eta elkarteekin egiten ari garen bira horretan beren iritzi eta ekarpenak biltzen ari gara diagnostiko bat egiteko ahalik eta alor gehienetan. Behin behar nagusiak detektatu ondoren, gure egitasmoarekin uztartu, lehentasunak finkatu eta ekimenak aurrera eramango ditugu, ahal bada eta horrela nahi badute, inplikatutako taldeekin elkarlanean. Adibide bat jartzeko, euskaltegikoek badiote helduek ahalegin



ARANTXA MANTEROLA, AZKEN UDALBATZA PLENOA JARRAITUZ.

gehiago egin beharko luketela alfabetatzeko, gu prest gaude beraiekin elkarlanean kontzientziazio kanpaina edo adostutako beste ekimenen bat aurrera eramateko heldu gehiago matrikulatu dadin.

**Udaleko Batzordeetan eta parte hartzeko asmorik al duzue? Plenora zuen hitza eramateko asmorik? Nola egituratuko da zuen zeregina?**

Galdera horri erantzun baino lehen, egungo zinegotziak eta alkate kargua hartu zuenak UHLekiko, eta hortaz, guri botua eman ziguten ehunka usurbildarrekiko daramaten jarrera baztertzailea salatu behar dugu. Batez ere, EA eta EAJren jarrera, egiaz, Aznarren legearekin bat egiten ari baitira. Gure taldea aintzakotzat hartzeko ez dute inongo borondaterik Informazioa bera emateko ere oztopoak eta zailtasunak jartzen digu Ormaetxeak. Ez omen dago bitartekorik guri kopiak helarazteko eta iragarki taulan omen daukagu informazioa. Iraileko aktak 153 orri ditu. Eskatuko genioke hori guztia taulan irakurtzeko ariketa egin dezan eta gero esan diezagula informazio-ematea errazten duenik... Hala eta guztiz ere, azken plenoetara joan gara, (kontrola eta guzti pasa ondoren) eta udalean tratatzen ari diren gaien jarraipena egiten saiatzen gara. UHLko zinegotzi bakoitza alor ezberdinen jarraipenaz arduratzen da.

**Orain arte udaletxean hartu diren erabakien inguruan zein iritzi duzue?**

Batzuek bederen aipatzearren, lotsagarria iruditzen zaigu zinegotzien dirusarien inguruan hartutakoak. Hiru pleno daramate jasoko dituzten xoxekin aurrera eta atzera. Azkenekoan erabakikoarekin, aurreko legealdiarekin konparatuta, %60 gehiago kostako zaigu usurbildarroi zinegotzien dedikazioa. Presoak Euskal Herriratzeko eskakizunaren inguruan egindakoa ere ezaguna da. Azken plenoan herriko 23 taldek ikurra berrezartzeko eskatu bazuen ere, ahobatez baztertu zuten eskakizuna. Baina lasai egon gaitezke, usurbildarrok baibaitugu orain gure eskubideez arduratuko den norbait. Zein eta, Beraetxe jauna! Muturra behar da gero hainbeste herritar atxilotuak edo torturatuak izan direnean beste aldera begiratu eta inongo babes praktikorik eman ez duen norbaiti horrelako zeregina emateko.







# Boliviara bidaltzeko zazpi ordenagailu jaso ditugu jada

**Duela bi hilabete inguru, Joxe Mari Makazaga elkarrizketatu genuen. Usurbildar honek hezkuntza zentro bat zuzentzen du Bolivian. 20 ordenagailu behar dituztela zioen Joxe Marik aipatu elkarrizketan. Deialdia ez zen oharkabean pasa eta jada zortzi bildu ditugu.**

Premia handiak dituzte Bolivian, eta bereziki, azpiegitura mailan. Joxe Mari Makazagak San Jose Hezkuntza Zentro Integratua martxan jarri eta, gaur egun, 1.200 ikasle inguru biltzen dira bertan. Ikasle asko baina baliabide gutxi. Ordenagailuetan, bereziki, premia handia dutela adierazi zuen elkarrizketan.



IKASTOLAK ONDO ZAINDUTAKO BOST ORDENAGAILU ZAHAR JARRI DITU.

Harrez gero, zortzi ordenagailu jaso ditugu. Udarregi Ikastolak bost ekarri ditu eta beste hirurak herriko hiru familik ekarriak. Ordenagailuz aldatu behar baduzu, zaharra NOAUA!ra ekarri eta gu arduratuko gara Boliviara bidaltzeaz.

# Guadalajaran dira Zumarte Eskolakoak

**Hitzordua ez zen oharkabean pasa eta, honakoan ere, Udarregi Ikastolako agertokia gainezka izan zen. Santa Zezilia eguneko jaialdia ikustekoa izaten baita. Ikasleak urduri zeuden, baina era berean, ikasitakoa plazaratzeko gogoz.**

Horregatik, Zumarte Musika Eskolako ikasleak animoso aritu ziren taula gainean. Ez ziren soilik Zumarte Musika Eskolako talde instrumentalak eta abesbatzak aritu. Errenteriako Orereta eta Oinarri abesbatzak ere hartu zuten parte azaroaren 21ean eginiko emanaldian.

Hor ez dira Zumarte Musika Eskolako albisteak amaitzen. Egun hauetan



JENDE UGARI BILDU ZEN UDARREGIN.

Guadalajaran dira Zumarteko talde instrumentala eta abesbatza. Maiatzean hasi zen bi herrien arteko musika eskolen elkar-trukaketa. Udaberrian Guadalajarakoak izan ziren gure artean eta orain Zumartekoak dira bisitan joan direnak. Bi kontzertu eskainiko dituzte bertan.

## DANTZA TALDEKO KUOTA ORDAINKETA

Dantza Taldeko kideek kuota ordaintzeko garaia dute. 45 eurokoa da urteko kuota. Familia berean bi dantzari edo gehiago badira, ikasle bakoitzeko 35 euro. Ikastolak antzeko ekimenetako hitzartua duen seguruak babestuko ditu ikasleak.
Kontu korrontearen zenbakia:
2101 0069 1101 2337 5982 (Kutxa).

## ODOL EMAILEEN BAZKARIA

Odol Emaileen Elkartekoentzat egun berezia izango da abenduaren 8a. Honakoan, Patri Jatetxean izango da bazkaria. Ondo pasa eta indarrak hartu datorren urterako!

## EASO KOROA SALBATORE ELIZAN

Abenduaren 19an Easo Koroaren gizonezkoen emanaldia izango dugu Salbatore Parrokian. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da saioa.

## TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTXEN SAIOA, HILAREN 20AN

Abenduaren 20an, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazioek "Poxpolin Marisorgin" izeneko emanaldi berria aurkeztuko dute Oiardon kiroldegian. Bi saiotan arituko dira. Lehena, 16:30etan; bigarrena 18:30etatik aurrera.

Sarrerak salgai: Oiardon, Bordatxon eta Mahukan. Aurretik, 4 euro. Egunean bertan, 5 euro. 12 hilabete aurrekoak, doan.

Antolatzailea: Argiaren Lagunak.




# Eztabaida interesgarriak noaua.com guneko foroetan

**Aurreko alean iragarri bezala, atal berriekin elikatu dugu noaua.com web gunea, Usurbili buruz egin den lehen web orrialde interaktiboa. Gero eta gehiago dira gure orrialdean sartzeko ohitura dutenak. Bereziki inkestea eta eztabaida foroen ataletan.**

Foroetan edozein unetan har daiteke parte. Martxan diren eztabaidatan sar daiteke nabigatzailea. Baina ez hori bakarrik, eztabaida berri bat ere planteatu daiteke. Mekanismoa oso erraza da. Sartu noaua.com gunean, “Eztabaida foroak” klikatu eta hortxe azalduko zaizkizu orain martxan diren gaiak: “Frontoia”, “Txakurrak lotuta”, “Errausketa-planta jarri nahi da Urnietan”, “Errealaren egoera”...




GAI BATI BURUZ ZURE AZALPENAK EMAN NAHI BADITUZU, ZURE DATUAK IPINI, IRITZIA EMAN ETA “BIDALI” KLIKATU. MOMENTUAN AZALDUKO DA ZURE EKARPENA.

## Lehen inkesten emaitzak

**Herriko zein kirol-talde jarraitzen dituzu?**

| | |
|---|---|
| Futbolekoak | % 17.86 |
| Eskubaloikoak | % 64.29 |
| Pilotariak | % 7.14 |
| Judo taldekoak | % 10.71 |

**Zein egunkari irakurtzen duzu?**

| | |
|---|---|
| Berria | % 42.11 |
| Gara | % 36.84 |
| DV | % 21.05 |
| Deia | % 0.00 |
| Besterik | % 0.00 |

**Euroarekin, gehiago edo gutxiago gastatzen al duzu?**

| | |
|---|---|
| Gehiago | % 80.00 |
| Gutxiago | % 0.00 |
| Berdin-berdin | % 20.00 |

:: ASTE HONETAKO INKESTA ::

**Udal inprimakietan berrezarriko al zenuke presoen aldeko ikurra?**

❏ Bai ❏ Ez ❏ Berdin dit

Botoa eman **www.noaua.com** web gunean

# Gabonetan ere, “Plis, Plas, Txalo ta Jolas”




Abenduak 23 asteartea
17:00etan Udarregi Ikastolan
“Lau anaia umezurtzak”
Txotxongilo saioa.

**Aurtengo gabonak bereziak izango dira. Bereziki Plis, Plas ekimenaren baitan Udalak eta NOAUA!k antolatu ditugun bi ekitaldiei esker. Abenduaren 23an txotxongiloak hurbilduko dira Udarregi Ikastolara, 17:00ak aldera. Ondoren, trikitixa kalejira pilotalekuraino eta bertan gaztain-jana egingo da.**

**Abenduaren 30ean, titiriteroak**

Hori gutxi balitz, Sebastopoleko Titiriteroak gonbidatu ditugu abenduaren 30erako. Egun osoz pilotalekuan, gaztelu puzgarriak, futbolin-erraldoia, malabarrak eta makilaje-tailerrean jolasteko aukera izango dugu. Dena musikaz girotua. Eta arratsalde partean egingo den txokolate-jana.




Abenduak 30 asteartea
Sebastopoleko Titiriteroak,
egun osoz pilotalekuan.
Ondoren, txokolate-jana.



# PENTSAMENDUEKIN JOLASE-

Guk gelan egin ohi ditugun jolas batzuk proposatzen dizkizuegu. Nahi al dituzue egin? Zuen gustokoak izango direla espero dugu. Aurrera eta ondo pasa!

1.-kopia ezazu pentsamendua falta diren letrak jarriz (beti izango da s edo z). Ondo pentsatu.

At_o Goenkalekoak iku_i genituen eta arga_ kiak eta firmak egin _i_ki_ guten. Gero hondart_ ara joan ginen, han jola_tu ginen eta ondoren ba_kaldu genuen. Arrat_aldean jola_tu eta trenera joan ginen.

---

2.-Ordena itzazu hitzak pentsamendua osatuz .
pinturara - buztina – Atzo – joan – eta – genuen – nintzen – egin .

.................................................................................................
.................................................................................................

---

3.-Pentsamendu honetako letrak oraindik lotan daude, ez dakite non edo nola jarri, horregatik zure lana da behar den bezala jartzea.
Atzo Dan iAnd ereta nies kupe lotan jo lastugi nen.

.................................................................................................
.................................................................................................

---

4.-Alfabetikoki ordena itzazu pentsamendu honetan agertzen diren hitz guztiak.
Ostiralean ikastolatik atera ondoren Durangora joan nintzen.

.................................................................................................
.................................................................................................

**Noaua! LH 3. maila**

# Elhuyaren bi joko eskuratu nahi?

**Elhuyar Fundazioari esker, NOAUA! Txikiko lagunentzat bi opari ditugu zozketatzeko. Oso erraza da, galdera hau era egokian erantzuten baduzu zuretzat izan daitezke bi jokoak. Animo!**

**Zein herritan kokatzen da Elhuyar Fundazioa?**
- **Usurbil.**
- **Donostia.**
- **Lasarte-Oria.**

Erantzuna helbidera bidali honetara bidali: **erredakzioa@noaua.com**. Irabazlearen izena abenduaren 15ean jakinaraziko dugu noaua.com gunean.

**"Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa" mahaiko jokoa**

'Gipuzkoa zure esku: galdera lasterketa' mahaiko jokoak ingurukoekin jolasteko aukera eskaintzen dio gaztetxoari: neba-arrebekin, gurasoekin, lagunekin, ikaskideekin eta abar. Beraz, harremanak estutzeko baliabide bat ere izan daiteke.

Joko hau Gipuzkoa zeharkatzen duen ibilbide batean egiten den lasterketa da, eta ibilbidea bukatzen duen lehena izango da irabazlea.

**"Piratekin matematikaren munduan 3", CDa**

Piratekin Matematikaren Munduan bildumaren azken CDa. Hemen ere joko didaktikoak aurki daitezke. 10-12 urte bitarteko gazteei zuzendutako CDa da eta piratekin matematikaren itsaso eta ozeanoanoetatik nabigatzeko aukera ematen da.



# Lehen Mendi Astea antolatu du Andatzak

**Andatza Kultur Kirol Elkarteak antolatu duen Lehen Mendi Asteak luxuzko partehartzaileak izango ditu. Horien artean, Edurne Pasaban tolosar mendizale ezaguna. Aste honen inguruko xehetasun guztiak Andoni Udabek eskaini dizkigu.**

**Aurretik antzekorik antolatu al du Andatza Elkarteak?**

Ekitaldi berria da. Lehen aldiz egingo da aurten.

**Pentsatzen dut mendizaletasuna bultzatzearren antolatu duzuela.**

Bai, eta zerbait ezberdina egitearren. Gure deialdiak beti irekiak izaten dira: mendi martxak, ekitaldiak... Baina batzutan badirudi koadrila baten kontua dela, eta ez da horrela. Taldea jendeari zabaldu eta mendizaleak erakarri nahi ditugu.

**Nondik dator aste hau antolatzeko egitasmoa?**

Orain arte bazkari bat egin izan dugu urte bukaeran. Herri inguruan ibilaldi bat egin, bazkaltzeko bildu eta, bazkalostean, diapositibak ikusteko aitzakia izan ohi da. Aurtengoan, mendi aste bat antolatzea erabaki dugu.

**Nolakoa izango da Mendi Astea?**

Astean zehar diapositiba emanaldiak egingo ditugu. Asteartean, abenduaren 9an, Edurne Pasabanek bere azken dokumentala eskainiko du, "Aztarnak" izenekoa. Udarregi Ikastolako aretoan izango da Pasaban, 20:00etan hasita.

Ostegunean, abenduaren 11n, Ainhoa Azpirozek "Islandia Bizikletaz" izeneko diaporama eskainiko du. Eta hurrengo egunean, abenduaren 12an, Koldo Huegunek "Bolivia bizikletaz" diaporama eskainiko du. Edurne Pasabanen saioa bezalaxe, gainontzeko emanaldiak ere Udarregi Ikastolan egingo dira, 20:00etan hasita.

## Astebukaeran, bazkaria

Larunbatean bazkaria izango da ekitaldi zentrala. Baina aurretik, Usurbil inguruan mendi buelta bat egingo da, helduentzat bereziki. Txangoaren ostean, Andatzpe elkartean egingo da bazkaria. Txartelak Txiribogan eta Bentan ipiniko dira salgai. Mendi Astea igandean amaituko da haurrentzat prestatu duten ibilaldi neurtu batekin. 2-3 orduko mendi zeharkaldia izango da, goizeko 9:00etan hasita.



EDURNE PASABAN ABENDUAREN 9AN ETORRIKO DA MENDI ASTERA.

### DIAPORAMA IKUSGARRIAK

**Abenduak 9, asteartea**
"Aztarnak" dokumentala, Edurne Pasaban.
20:00etan Udarregi ikastolan.

**Abenduak 11, osteguna**
"Islandia bizikletaz" diaporama, Ainhoa Azpiroz. 20:00etan Udarregi ikastolan.

**Abenduak 12, ostirala**
"Bolivia bizikletaz" diaporama, Koldo Huegun.
20:00etan Udarregi ikastolako aretoan.

## Hurrengo saioak !

FUTBOLA

**Abenduak 6, larunbata**
Emakumezkoen liga: Usurbil FT - Groseko KE.
Erregionalen 2. maila: Euskalduna - Usurbil FT.
Kadeteen 2. maila: Usurbil FT, atseden,

**Abenduak 13, larunbata**
Emakumezkoen liga: Añorga - Usurbil FT.
Erregionalen 2. maila: Usurbil FT - Lazkao KE.
Kadeteen 2. maila: Usurbil FT - Internacional CD.

**Abenduak 20, larunbata**
Emakumezkoen liga: Usurbil FT - Amaikak Bat.
Erregionalen 2. maila: Idiazabal KE - Usurbil FT.
Kadeteen 2. maila: Kostkas-Miren - Usurbil FT.

ESKUBALOIA

**Abenduak 6, larunbata**
Helduak: Urola - Usurbil KE.
Kadeteak: Usurbil KE, atseden.

**Abenduak 13, larunbata**
Helduak: Usurbil KE - Leizaran.
Kadeteak: Amenabar Zarautz - Usurbil KE.

MENDIA

**Abenduak 9 / Abenduak 14**
Antolatzailea: Andatza KKE.

PILOTA

**Abenduak 12, ostirala**
Aitzaga Pilota Txapelketaren azken laurdenetako partidak. 19:30etan herriko pilotalekuan.
1. Usabiaga-Urdanpilleta / Aranburu-Arano.
2. Leko-Arroyo / Martiarena-Kastresana.
3. Aintzi-Txilibita / Olaizola-Arruti.
4. Esnal-Sarasua / Arkaitz-Muxa.

Antolatzailea: Aitzaga Elkartea.

K m

MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97


TXIRIBOGA
taberna
pintxoak, bokatak eta
plater konbinatuak
Telf: 943 36 13 98

## Lehiaketa !




## Denborapasak !

Usurbilgo txirrindularia

Soluzioa 22. orrialdean



Aurpegiko ilea
Ornogabe mota
Habearteak
Egur
Aretoa
Musika nota
Abizenak
Halere
Euskal Herria
Niri, duzue
* DEITURA
Barneratu
Zikoitzak
Salamanca-ko hiria
Arrantza tresna
* IZENA
Guraso arra
Hegaztien bizitokiak
Bahearen erdian
Dardara
Daukat
Gauero ohi dugu
Lasterke-tari
Jaiak
Botoak
R birritan
Neroni
Euskal sindikatua
Jardun
Urrea
Uribe Kosta
Titanioa
Naizen hau
Eibarko santutegia
Kontso-nantea
Nitro-genoa
Sufrea
Etxeko aberea
Modu atzizkia
Musika nota



## Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

| Donostia | Usurbil | Zarautz |
|---|---|---|
| 05.47* | 06.03* | 06.20* |
| 06.17* | 06.33* | 06.50* |
| 06.47* | 07.03* | 07.20* |
| 07.17 | 07.33 | 07.50 |
| 07.47 | 08.03 | 08.20 |
| 08.17* | 08.33* | 08.50* |
| 08.47 | 09.03 | 09.20 |
| **09.52/** | | **10.21/** |
| 10.17 | 10.33 | 10.50 |
| 10.47 | 11.03 | 11.22 |
| 11.51 | 12.05 | 12.20 |
| 12.17* | 12.33* | 12.50* |
| 12.47 | 13.03 | 13.20 |
| 13.17* | 13.33* | 13.50* |
| 13.47 | 14.03 | 14.20 |
| 14.17* | 14.33* | 14.50* |
| 14.47 | 15.03 | 15.20 |
| 15.17* | 15.33* | 15.50* |
| 15.47 | 16.03 | 16.20 |
| 16.17* | 16.33* | 16.50* |
| 16.47 | 17.03 | 17.20 |
| 17.17* | 17.33* | 17.50* |
| 17.47 | 18.03 | 18.20 |
| 18.17* | 18.33* | 18.50* |
| 18.47 | 19.03 | 19.20 |
| 19.17* | 19.33* | 19.50* |
| 19.47 | 20.03 | 20.20 |
| **20.21/** | | **20.48/** |
| 20.47 | 21.03 | 21.20 |
| 21.47 | 22.03 | 22.20 |

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

| Zarautz | Usurbil | Donostia |
|---|---|---|
| 06.08* | 06.24* | 06.39* |
| 06.38* | 06.54* | 07.09* |
| 07.08* | 07.24* | 07.39* |
| 07.38* | 07.54* | 08.09* |
| 08.08 | 08.24 | 08.39 |
| 08.38* | 08.54* | 09.09* |
| 09.08 | 09.24 | 09.39 |
| 10.05 | 10.24 | 10.39 |
| 11.08 | 11.24 | 11.39 |
| **11.22/** | | **11.47/** |
| 12.08 | 12.24 | 12.39 |
| 12.38* | 12.54* | 13.09* |
| 13.08 | 13.24 | 13.39 |
| 13.38* | 13.54* | 14.09* |
| 14.08 | 14.24 | 14.39 |
| 14.38* | 14.54* | 15.09* |
| 15.08 | 15.24 | 15.39 |
| 15.38* | 15.54* | 16.09* |
| 16.08 | 16.24 | 16.39 |
| 16.38* | 16.54* | 17.09* |
| 17.08 | 17.24 | 17.39 |
| 17.38* | 17.54* | 18.09* |
| 18.08 | 18.24 | 18.39 |
| 18.38* | 18.54* | 19.09* |
| 19.08 | 19.24 | 19.39 |
| 19.38* | 19.54* | 20.09* |
| 20.08 | 20.24 | 20.39 |
| 21.08 | 21.24 | 21.39 |
| **22.07/** | | **22.32/** |
| 22.38 | 22.54 | 23.09 |

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero



## Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

| Donostia | Urbil | Usurbil | Zarautz |
|---|---|---|---|
| 07.40 | | 08.05 | 08.25 |
| 08.00 | | 08.25** | |
| 08.00 | 08.25 | 08.35 | 08.55 |
| 08.40 | | 09.05 | 09.25 |
| 09.00 | 09.20 | 09.30 | |
| 09.00 | 09.25 | 09.35 | 09.55 |
| 09.40 | | 10.05 | 10.25 |
| 10.00 | 10.25 | 10.35 | 10.55 |
| 10.40 | | 11.05 | 11.25 |
| 11.00 | 11.25 | 11.35 | 11.55 |
| 11.40 | | 12.05 | 12.25 |
| 12.00 | 12.20 | 12.25** | |
| 12.00 | 12.25 | 12.35 | 12.55 |
| 12.40 | | 13.05 | 13.25 |
| 13.00 | 13.20 | 13.30 | |
| 13.00 | 13.25 | 13.35 | 13.55 # |
| 13.40 | | 14.05 | 14.25 |
| 14.00 | 14.20 | 14.30** | |
| 14.00 | 14.25 | 14.35 | 14.55 |
| 14.40 | | 15.05 | 15.25 |
| 15.00 | 15.20 | 15.30 | |
| 15.00 | 15.25 | 15.35 | 15.55 |
| 15.40 | | 16.05 | 16.25 |
| 16.00 | 16.25 | 16.35 | 16.55 |
| 16.40 | | 17.05 | 17.25 |
| 17.00 | 17.25 | 17.35 | 17.55 |
| 17.40 | | 18.05 | 18.25 |
| 18.00 | 18.20 | 18.30 | |
| 18.00 | 18.25 | 18.35 | 18.55 |
| 18.40 | | 19.05 | 19.25 |
| 19.00 | 19.20 | 19.25** | |
| 19.00 | 19.25 | 19.35 | 19.55 |
| 19.40 | | 20.05 | 20.25 |
| 20.00 | 20.20 | 20.30 | |
| 20.00 | 20.25 | 20.35 | 20.55# |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.45 |
| 21.00 | 21.25 | 21.35 | 21.55 |
| 22.15 | 22.35 | 22.45 | 23.05 |
| 22.00 | 22.25 | 22.35 | 22.55 |
| 22.30 | 22.55 | 23.05 | 23.25 |
| 00:00 | | 00.25 | 00.45 |
| 02:00 | | 02.25 | 02.45 |
| 04.00 | | 04.25 | 04.45 |
| 06.00 | | 06.25 | 06.45 |

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

| Zarautz | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|
| 06.45 | 07.05 | | 07.30 |
| 06.45 | 07.05 | 07.10 | 07.30 |
| 07.15 | 07.35 | | 08.00 |
| 07.45 | 08.05 | | 08.30 |
| 07.45 | 08.05 | 08.15 | 08.40 |
| 08.15 | 08.35 | | 09.00 |
| 08.45 | 09.05 | | 09.30 |
| 08.45 | 09.05 | 09.15 | 09.40 |
| | 09.30 | 09.35 | 10.00 |
| 09.45 | 10.05 | | 10.30 |
| 09.45** | 10.05 | 10.15 | 10.40 |
| | 10.30 | 10.35 | 11.00 |
| 10.45 | 11.05 | | 11.30 |
| 10.45 | 11.05 | 11.15 | 11.40 |
| 11.45 | 12.05 | | 12.30 |
| 11.45 | 12.05 | 12.15 | 12.40 |
| 12.45 | 13.05 | | 13.30 |
| 12.45 | 13.05 | 13.15 | 13.40 |
| | 13.30 | 13.35 | 13.55* |
| 13.45 | 14.05 | | 14.30 |
| 13.45 | 14.05 | 14.15 | 14.40 |
| | 14.30 | 14.35 | 15.00 |
| 14.45 | 15.05 | | 15.30 |
| 14.45 | 15.05 | 15.15 | 15.40 |
| | 15.30 | 15.35 | 15.55* |
| 15.45 | 16.05 | | 16.30 |
| 15.45 | 16.05 | 16.15 | 16.40 |
| | 16.30 | 16.35 | 17.00 |
| 16.45 | 17.05 | | 17.30 |
| 16.45 | 17.05 | 17.15 | 17.40 |
| 17.45 | 18.05 | | 18.30 |
| 17.45 | 18.05 | 18.15 | 18.40 |
| 18.45 | 19.05 | | 19.30 |
| 18.45 | 19.05 | 19.15 | 19.40 |
| | 19.30 | 19.35 | 20.00 |
| 19.45 | 20.05 | | 20.30 |
| 19.45 | 20.05 | 20.15 | 20.40 |
| 20.45 | 21.05 | 21.15 | 21.40 |
| 21.15 | 21.35 | 21.40 | 22.00 |
| 21.45 | 22.05 | 22.15 | 22.40 |
| 23.15 | 23.35 | | 00.00 |
| 01.15 | 01.35 | | 02.00 |
| 03.15 | 03.35 | | 04.00 |
| 05.15 | 05.35 | | 06.00 |

*Aiatik dator — Asteburutan — Soilik larunbata gauez — Larunbat lanegunetan

## Goardiako farmaziak

**Abenduak 5, ostirala**
E: Gil, Nagusia 24, Lasarte
G: Bilbao, Urbieta 7, Hernani
**Abenduak 6, larunbata**
E/G: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
**Abenduak 7, igandea**
E/G: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
**Abenduak 8, astelehena**
E: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
G: Bulnes, Grupo Etxeberria 1, Hernani
**Abenduak 9, asteartea**
E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte
G: Gorospe, R. Arregi 12, Andoain
**Abenduak 10, asteazkena**
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte
G: Zatarain, Elizondo 6, Andoain
**Abenduak 11, osteguna**
E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte
G: Ansa, Ondarreta 8, Andoain
**Abenduak 12, ostirala**
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte
G: Arzallus, Larramendi 16, Andoain
**Abenduak 13, larunbata**
E: Gil, Nagusia 24, Lasarte /
E /G: Iturralde, Bordaberri 1, Usurbil
**Abenduak 14, igandea**
E: Gil, Nagusia 24, Lasarte
G: Iturralde, Bordaberri 1, Usurbil
**Abenduak 15, astelehena**
E: Gil, Nagusia 24, Lasarte
G: Diaz, Nagusia 19, Andoain
**Abenduak 16, asteartea**
E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte
G: Elizondo, Zumea 20, Andoain
**Abenduak 17, asteazkena**
E: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
G: Iturralde, Bordaberri 1, Usurbil
**Abenduak 18, osteguna**
E/G: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte
**Abenduak 19, ostirala**
E/G: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte
**Abenduak 20, larunbata**
E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte /
E/G: OA, Kontzeju zaharra 11, Usurbil
**Abenduak 21, igandea**
E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte
G: OA, Kontzeju zaharra 11, Usurbil

E:Egunez G:Gauez E/G:Egunez eta gauez

Urte osoko egutegia **noaua.com** helbidean

## Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* /9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

**LARUNBATETAN**
**Zubieta-Donostia**
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15,30(T)/ 21:35 (T)
**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

## Datorren Noaua!

**Abendua**

| As. | Ar. | Az. | Os. | Ost. | La. | Ig. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | (19) | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

Hurrengo alea

## Bai esan?

- Udala ........ 37 19 51
- Udaltzaingoa ........ 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak ........ 37 01 48
- Anbulategia ........ 36 20 13
- Udarregi ikastola ........ 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) ........ 36 45 00
- Agerialde ikastetxea ........ 36 38 95
- Oiardo kiroldegia ........ 37 24 98
- Zumarte ........ 37 15 94
- Etumeta ........ 37 20 01
- Taxi geltokia ........ 36 21 78
- D.Y.A. ........ 46 46 22
- Ertzantza ........ 112
- Suhiltzaileak ........ 112
- Larrialdiak ........ 112
- Anbulantziak ........ 112
- Gure Pakea ........ 37 32 28
- Gure Elkartea ........ 37 17 51
- Arrate egoitza ........ 36 63 40
- Eusko Tren ........ 47 09 76
- Noaua! aldizkaria ........ 36 03 21
- Bake epaitegia ........ 37 23 36
- Oa farmazia ........ 37 60 76
- Iturralde farmazia ........ 36 33 95
- Zubietako Batzarra ........ 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

# Oharrak

## Etxebizitza

- Hiru logela, egongela, sukaldea eta bi balkoi dituen etxebizitza salgai, San Esteban kalean. Interesatuak deitu 943 36 32 59 telefonora.
- Pisu bat alokatzen da Txikierdin. 645 733 812.
- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen edo inguruan, konpartitzeko. 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 90 27 62.
- Pisua alokatu edo konpartitu nahi nuke. Nirekin harremanetan jartzeko deitu, 647 973 844.
- Pisu bat bilatzen ari naiz, alokatzeko edo konpartitzeko. Oso urgentea da beraz, pisurik alokatzeko baduzu edo gelaren bat, deitu mesedez hainbat arinen 615 71 01 64 telefonora (Gotzon).
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Pisu baten bila nabil Usurbilen, alokairuan hartzeko prest nago. Tf: 617 194 688 (Raul).
- Alokairuzko etxe baten bila gabiltza. 670 532 443.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.

## Salerosketak / garajeak

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro / 15 m 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.
- Yamaha YZ 125 motokros motorra salgai. 1.000 euro. 616 182 574.
- Suzuki Marander 250 CC salgai. Matrikula, SS-4001-BD. Oso egoera onean. 670 328 760.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaragainan 200 eta 300 m2-ko bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. 678 81 52 77.
- Eguzkitzan 30 metro karratuko garaje itxia salgai. 667 583 195 (Maria Angeles). Deitu eguerditan edo gauez, bestela utzi mezua.

## Lanpostuak

### Lan-eskaerak

- Goizetan etxeko lanak egiteko prest nago. 943 37 64 49.
- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. Deitu 943 37 10 32 telefono zenbakira.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Dei iezadazu 943 360 754 (Ana).
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.
- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gauez edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan, Deitu hona: 652 757 495.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 15:00etatik 17:00etara. Astelehen, asteazken eta ostiraletan. 943 36 57 37.

### Lan-eskaintzak

- Patri jatetxean zerbitzari bat behar dugu. Deitu 943 36 27 25 telefono zenbakira.
- Sukaldari, kamarera, tabernari eta garbitzailea behar dugu, jatetxe-taberna berrirako. Deitu 15:00-18:00. Tf: 687 078 356.
- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Langile bat behar dugu tabernan lan egiteko, larunbata eta igandetarako. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 360 217.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217 / 649 211 665.

## Bestelakoak / Galdutakoak

- Arratoi txakur kumeak oparitzen ditugu. Deitu 943 360 759 telefono zenbakira.
- Laguntzaile bat behar da Lasarteko ileapaindegi baterako. 943 37 71 90 / 629 402181.
- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat “punto de cruz”-ean egina ahaztu genuen. Topatu baduzu deituidazu: 94337 20 34.
- Txakur marroi bat galdu da Zubietan. Koilare urdina du. Topatzen baduzu dei iezadazu: 943 36 39 43 / 655 715 469.
- Belarritako batzuk galdu dira, urrezkoak, Optika inguruan. Topatu badituzu deitu 943 36 06 59 telefono zenbakira.
- Ibilgailuarekin eramateko egokituta dagoen kanping-denda bat saltzen dut. Kanping-aren osagarri extrak barne. 635 729 637.
- Pelukeria bateko estetika kabina bat alokatzen da. 943 36 19 71.

# Txerrimunik ordainetan



**Zorionak Irati!**
Abenduaren 4ean, hiru urte bete zenituen. Zorionak eta musu handi bat etxekoen partez.



**Zorionak bikote!**
Ana eta Mikel. Ana abenduaren 4an egin zituen urteak. Mikelek, aldiz, abenduaren 1ean. Zorionak eta muxu pilo bat bioi etxekoen partez



**Zorionak Xabi!**
Abenduaren 9an urtebetetze egun ona igaro. Urte askotarako eta muxu bat etxekoen partez .

## Heriotzak

- **Jose Garcia Izquierdo**
  2003-XI-28. Usurbil.



## Agenda !

ABENDUAK 8, ASTELEHENA
- Usurbilgo Odol Emaileen bazkaria Patri Jatetxean.

ABENDUAK 9/ABENDUAK 14
- Lehen Mendi Astea. Antolatzailea: Andatza KKE.

ABENDUAK 19, OSTIRALA
- Easo Koroa Salbatore Elizan. Arratsaldeko 20:00etan.

ABENDUAK 20, LARUNBATA
- Takolo, Pirritx eta Porrotxen "Poxpolin Marisorgin" izeneko emanaldi berria Oiardon kiroldegian. Bi saio: lehena, 16:30etan; bigarrena 18:30etatik aurrera.

Sarrerak salgai: Oiardon, Bordatxon eta Mahukan. Aurretik, 4 euro. Egunean bertan, 5 euro. 12 hilabete aurrekoak, doan.

Antolatzailea: Argiaren Lagunak.

## Denborapasak !



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ✪ | B | ✪ | N | ✪ | G | ✪ | D | ✪ |
| | | | Z | I | Z | A | R | E | ✪ | E | H |
| | | | ✪ | Z | U | B | E | L | D | I | A |
| ✪ | Z | ✪ | S | A | R | E | ✪ | A | I | T | A |
| B | E | J | A | R | ✪ | A | H | ✪ | D | U | T |
| ✪ | K | O | R | R | I | K | A | L | A | R | I |
| B | E | S | T | A | K | ✪ | B | O | Z | A | K |
| ✪ | N | E | U | ✪ | A | R | I | ✪ | U | K | ✪ |
| L | A | B | ✪ | A | R | R | A | T | E | ✪ | N |
| ✪ | K | A | T | U | A | ✪ | K | I | ✪ | S | I |

**Soluzioa:** Joseba Zubeldia

## Musikaren txokoa !



### Sen eta Hendrik, bide lagun



Metak disketxeak esperimentaziorako ate bat zabaldu zuen "Pil Pil sessions" azpizigiluaren bitartez. Hirugarren erreferentzian, Hendrik Roever (Los Deltonos, Hank) eta Sen taldearen bideak elkartu dira. Haritz Harreguy eta bere taldekideen kantutegia laburbildu da lan txiki bezain eder honetan. Gainera, Hendrik euskaraz kantatzeko aukera eskaintzen digu  kutsu akustikoa duen disko berri honek.

**Fitxa teknikoa:**
Izenburua: Izen gabea.
Egileak: Sen eta Hendrik Roever.
Argitaratzailea: Metak, 2003.

## Egin kontu !

### Durangoko Azokaren aro berria

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak 38. edizioa beteko du aurten. Gaur egun basilika den Andra Mari elizpean hasi zen azoka duela urte dexente, 1965ean. Harrez gero, azokara gerturatu izan diren bisitariek aterpe ezberdinak ezagutu dituzte. Aurrerantzean, ordea, eraikin finko batean egingo da azoka. Gerediaga Elkartekoen ametsa egi bihurtu da azkenean. Landako izeneko erakustazoka inauguratu ostean, aro berri bat zabaldu da liburu eta disko egileentzat, eta orohar, Durangoko Azokara hurbiltzeko ohitura dutenentzat.

Aurten azoka, abenduaren 5ean hasiko da eta 8an amaituko da, iluntze partean.

## KZgunearen deialdiak

**Oinarrizko Internet ikastaroa, 20 ordukoa.**
Abenduak 9-23 (16:00-18:00).

**NagusiWeb ( 3. adiakoentzat)**
- Abenduak 15-19 (11:00-13:00).
- Abenduak 22-Urt. 2 (18:00-20:00).

**Mintegiak**
- Abenduak 22 (11:00-13:00)
- Abenduak 23 (9:00.11:00) "Etxetik eros ezazu".
- Abenduak 29 (11:00-13:00) "Winzip *on line*".
- Abenduak 30-31 (9:00-11:00) "Messenger".

ARRAINDEGIA
PELLO

ZUMET MENU K
ZUMET
J TETXE

TX
rt
PINTX E EZI K
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

# OIARDO KIROLDEGIA

www.buruntzaldea.org

## Datorren urtean Oiardo kiroldegian abonatu izateko

## Hauexek dira aukera ezberdinak: (prezioak eurotan)

| 2004 | Familiarra | 18urtezgoitik | Gazteak |
|---|---|---|---|
| Urtarrila-abendua | 160 | 105 | 66 |
| Otsaila-abendua | 160 | 105 | 66 |
| Martxoa-abendua | 149 | 98 | 62 |
| Apirila-abendua | 136 | 89 | 56 |
| Maiatza-abendua | 122 | 80 | 51 |
| Ekaina-abendua | 109 | 72 | 45 |
| Uztaila-abendua | 96 | 63 | 40 |
| Abuztua-abendua | 82 | 54 | 34 |
| Iraila-abendua | 69 | 45 | 29 |
| Urria-abendua | 56 | 37 | 23 |
| Azaroa-abendua | 43 | 28 | 18 |
| Abendua-abendua | 29 | 19 | 12 |
| Urtarrila-ekaina | 96 | 63 | 40 |
| Otsaila-ekaina | 82 | 54 | 34 |
| Martxoa-ekaina | 69 | 45 | 29 |
| Apirila-ekaina | 56 | 37 | 23 |
| Maiatza-ekaina | 43 | 28 | 18 |
| Ekaina-ekaina | 29 | 19 | 12 |

Telf: 943 37 24 98